

## SANTUEN ALDE AUZOLANEAN

1

Gaur guk hemen zer ospatzen dogun  
danok gagoz jakinean:  
Mañariako gizon talde bat  
hasi zan auzolanean,  
gure ermitak zelan zainduko;  
hain egoera txarrean..  
Hamarkada bat bete dalako,  
gagoz ospakizunean.

2

Txalogarria da herri baten  
holango gizon kuadrila,  
gaur egunean alperrik joan  
hobeago baten bila.  
Santuok hemen seguru dagoz,  
ze bizimodu trankila!  
Gaurko eguna hau ospatzeko  
gozoa izan dedila.

3

Alde batetik herria dogu  
maitatu behar doguna,  
eta bestetik gure eleiza  
guztion eginkizuna.  
Benetan maite dauanarentzat  
ezer ez da lan astuna,  
horregaitik da hain pozgarria  
ospatzen dogun eguna.

4

Ikusten danez, eleiza batzuk  
dira eder harrizkoak,  
ta beste batzuk ederragoak  
fedez espirituzkoak.  
Zenbat ahalegin ipinten dogun  
zaintzen era batekoak!  
Besteak ere bizibarritzen  
lagun deiskula Jainkoak.

5

Gauza ederra auzolanean  
alkartzea auzotarrak;  
danen onari begiratuta,  
zelan konpondu baztarrak!  
Geureak dira, ta beste barik,  
egin ditugu beharrak,  
ondo gogoan izango dabez  
gure lagun zerutarrak

6

Batzuk teilatu, besteak orma,  
harek harri ta porlana,  
Mañarin behintzat probetxuzkoa  
izan jaku auzolana.  
Jesusek dinon alarguntxoak  
emon eban eukan dana,  
dirua baino ederrago da  
agertu daben afana.

7

Hainbeste gogo eta denpora,  
hainbeste izerdi neke,  
santuakaitik dala esanda,  
dana musutruk debalde.  
Arotz, hargin ta fontaneruak,  
peoi etabar nahibeste...  
Gure kasuan izan ditugu  
pintore eta alkate.

8

Beti umorez ta irribarrez,  
nahiz gerri-mokorrak kantza;  
santuak eta mama goxuak  
indar asko dauke, antza.  
Zuek herrian emon dozue  
sekulako testigantza,  
Holango batzuk diran artean  
beti dago esperantza.

9

Santuak gaurtik ondo dakie  
nora jo preminorduan,  
ez da bildurrik boluntario  
jentea dagon lekuan.  
Seguru nago hain leku ona  
prestau deutesnai munduan,  
ederragoa prestauko deutse  
euren ondoan zeruan.

10

Eskaritxo bat San Lorentzo  
ta Zuri Aita Kurtzeko:  
Osasun bakez zaindu gaizuez,  
gero geuk zuok zaintzeko.  
Lagundu, arren, izan gaitezan  
guztioz zuon antzeko,  
gero gaitezan zuok eta gu  
Aita Beraren etxeko.

A. Martzel